

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 27,3 milioi euro bildu ditu zerga-erregularizazioaren prozesu bereziaren bidez

Neurria 2012ko bigarren seihilekoan aplikatu zen; Foru Gobernuaren aurreikuspenen bikoitza da bildutakoa eta 396 milioi euro azaleratzea lortu da.

Jueves, 07 de febrero de 2013

Nafarroako Gobernuak 27,3 milioi euro bildu zituen 2012ko bigarren seihilekoan egindako zerga-erregularizazioaren prozesu bereziaren bidez, Nafarroako Zerga Ogasunak emandako datuen arabera. [Datuok](#) Lourdes Goicoechea lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak aurkeztu ditu gaur.

Kopuru zehatza 27.305.482 eurokoa izan da, eta zergen, interesen eta gainordainen batura da. Zenbatekoa Foru Gobernuak egindako aurreikuspenaren bikoitza da, 14 milioi euro kalkulatu baitzituen. Gainera, prozesuari esker, atzerriko kontu eta zerga-paradisuetan zeuden 396 milioi euro baino gehiago agertu.

Zehazki, erregularizazioaren bidez, hamabi zergaren 4.751 aitorten osagarri edo ordezkotzat aurkeztu dira ([ikusi erantsitako taula](#)), 287 pertsona fisiko eta 32 sozietaterenak. Diru-sarrerak BEZaren aitorten osagarrietatik (1.119 aitorten eta 6,3 milioi euroren ordainketa), Oinordetzen Zergatik (47 aitorten, 5,8 milioi euro), PFEZetik (771 aitorten, 5,7 milioi euro) eta Ondarearen Zergatik (132 aitorten, 3,5 milioi euro) eratorri dira.

Esan bezala, prozesuak pertsona fisikoen 396.133.762 euro azaleratzea lortu du, atzerriko edo zerga-paradisuetako kontuetan gordeta baitzeuden. Hemendik aurrera, ondare horren zergak Nafarroako zerga-arauek ezartzen dutenaren arabera ordainduko dira.

Lehendakariordeak mintzaldian esan du erregularizazio-prozesua borondatezkoa dela, eta dagoeneko Ogasun Administrazioaren eskakizuna jaso dutenek ezin izan dutela borondatez aitortu. Esan duenez, erregularizazioa ohiko prozesua da eta Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrak arautzen du.

Horrez gain, zera ere esan du: “zerga-betebeharrak egunean izan ez dituzten iruzurgileek askoz ere isun handiagoak ordaindu beharko dituzte: zergen arau-hauste larriengatik isunak ordaindu ez diren zenbatekoen % 75 eta % 180 artekoak dira”.

Zerga-erregularizazioa [UPN eta PSN alderdiek adostu zuten](#), 2012ko maiatzean Gobernuak osatzen zuten alderdiek alegia. Diru-sarrerak handitu, aurrekontuak gauzatzeko direla bermatu eta defizitaren helburua

betetzeko estrategia izan zen. Erregularizaziorako pizgarriak ezarri ziren. Kuota zerga bakoitzaren ohiko xedapenen arabera bazen ere (murrizketarik gabe), gainordaina % 0,5 eta 2 artera jaitsi zen, eta berandutze-interesak % 4ra.

Baldintza horiek 2012ko abenduaren 31ra arte aurkeztutako borondatezko aitortzeentzat bakarrik izan ziren (Ogasunaren eskakizuna zuten aitortzeentzat izan ezik). Aurkeztu ondoren, aitortzeak egiaztatu eta ikuskatu egin daitezke, beste edozein zergapekoren aitortzeekin egiten den moduan.